



## JARDUERA ➤ Ikusi aro honen bideoa [hemen](#)

Paleolitoa **Historiaurreko lehen aroa** da. **Gizakia** sortu zenetik (duela 5 milioi urte) **abeltzaintza eta nekazaritza asmatu** arteko denbora-tartea (duela 11.000 urte inguru) hartzen du. Lehen gizakiak **Afrikan** sortu ziren orain dela 5 milioi urte.



## Bizimodua Paleolitoan



Paleolitoan gizakiak **tribuetan** bizi ziren.

Leku bateko janaria bukatzen zenean, beste batera joaten ziren; hau da, ez ziren leku finko batean bizi, horregatik **nomadak** zirela esaten da.

Ibaien eta aintziren alboan kokatzen ziren. Leku horietan ur **asko** eta jateko landare asko zeudelako. Ehizatzen zutena jaten zuten. Zura, harriak, eta hezurak erabiltzen zituzten lanak egiteko.

Gizaki hauek horrela lortzen zuten janaria:

- **Animaliak ehizatzen** zituzten. mamutak, hartzak, bisonteak, oreinak ...
- **Arrantza egiten** zuten.
- **Fruitu eta sustraiak biltzen** zituzten.



Eremu hauetan gizakiak **animalia arriskutsuekin** bizi ziren: mamutekin, orenekin, hartzekin eta bisonteekin.

## Non bizi ziren?

**Aire-zabalean, kobazuloetan** edo lokatzez, harriz eta adarrez egindako **etxoletan** bizi ziren.



## Jantziak

Lehen gizakiak eremu beroetan bizi ziren; beraz, ez zuten gorputza estali beharrik. Baina Europa, Asia eta Ameriketara joan zirenean jantziak ehizatutako **animali larruekin** egiten zituzten. **Hezurrezko orratzez josten** zituzten eta animalia-tendoiak erabiltzen zituzten haria bezela.

Dotore ipini behar zutenean, **harri eta hezurrekin lepokoak** egiten zituzten. Eta batzuetan gorputza lur gorriz pintatzen zuten.

## Labar artea

Paleolitoko pertsonak **pinturaz apaintzen** zituzten haitzuloetako hormak eta sabaia, batez ere animalienak. Horregatik, **labar-artea** (artea haitzetan) esaten zaio.

Paleolitoko pinturak lau ezaugarri zituzten:

- a) **Polikromatua**: zenbait kolore erabiltzen dituzte irudi berean.
- b) **Errealista**: Animalia irudiak, bisonteak, oreinak, mamutak eta esku-markak.
- c) Pinturak egiteko **mineralak zanpatzen** zituzten hauts bihurtu arte gero.
- d) **Pintzelak animalien ileekin** egiten zituzten.



**JARDUERA** ➤ Ezagutu paleolito garaiko hainbat Euskal kobazulo: Pozalagua - Santimamiñe - Ekain

## Eskulturak

Emakumeen eskultura txikiak egiten zituzten: **Venusak** esaten zaie. Emakumearen sexu-organoak, handituta zituen espirituak emakumeen ugalkortasuna bermatzeko.



## Aurkikuntzak



**Sua** egiten ikasi zuten: Janaria prestatzeko, berotzeko, ehizatzeke eta animaliak usatzeko erabiltzen zuten.

**Honela pizten zuten sua**

- 1 Bi harri elkarren kontra jotzen zituzten, txinpartak atera arte. Horiel esker, adar lehorrek su hartzen zuten.
- 2 Makila bat taula baten gainean irristatzen zuten indar handiz, sugarrak atera arte.
- 3 Makila bat taula baten gainean biratzen zuten oso azkar, sugarrak atera arte.